

BEASAINGO UDALA

“COWORKING” GUNEA ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZEN INGURUKO OINARRIAK

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Arestian aipatutakoei “coworking” espazio pribatuetan laguntzak esleitzeko baldintzak finkatzea da.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

-Helbide fiskala Beasaingo udalerrian izatea.

-Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea (begiratu oinarri hauetako 3.a.puntua)

-Pertsona juridikoen kasuetan, gehienez hiru langile izatea. (Ez dira irabazi elkarteak onartuko).

-Beasainen jabetzan lokalik ez edukitzea, jarduera garatzeko.

-Jarduera garatu ondorengo kontuan izanda:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legea.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

-Lagunduko den gastua: 12 hilabeteetako lokalaren alokairuaren prezioa (BEZik gabe).

-Dirulaguntzaren zenbatekoa: Lokalaren alokairuaren prezioaren %50a. Gehienez ere 1.200€ urtean.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Epea: Eskabideak oinarriak GAOn argitaratzen diren hurrengo egunetik eta 2024ko abenduaren 1era arte.

-Moduak:

•Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta.

Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.

- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta, Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko. Epe horretan dokumentazioa osatzen ez bada, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.